



JAI BUSa aurrera eraman ahal izateko eta bere balio-proposameneko eskaintza garatzeko funtsezko baliabideak ezin bestekoak dira. Mota askotakoak izango ditugu, hala nola, baliabide fisikoak, intelektualak, giza baliabidea eta finantza-baliabideak.

Erabiliko ditugun baliabide fisikoak, honako hauek dira; autobusa, autobusa gordetzeko lokala eta datofonoa ordainketa guztiak egin ahal izateko. Baliabide fisikoak eta giza baliabideak bazkideen artean banatuko ditugu; Goizederrek komunikazio arduraduna izango da, ardura honekin JAI BUSAren sare sozialetan arituko da, intagram kontua aktibo mantentzen eta web orrialdean. Ixone eta Oihane gidariak izango dira eta Nahiak finantza kontuak kudeatuko ditu, zerbitzuaren gastuak, inbertsioak...

Erabiliko ditugun finantza baliabideak iturri desbedinetatik lortuko ditugu, bai gure aurrezkietatik lortutakoa( bakoitzak 10.000 euro jarriko ditugu) eta bai Euskal Jaurlaritzak emango dizkigun diru laguntzetatik lortutako dirua.